



INFORMAZIO-ZIRKULARRA, UDALAK FINANTZATZEKO FORU FUNTSA ARAUTZEN DUEN AZAROAREN 23KO 15/1994 FORU ARAUA ALDATZEARI BURUZKOA.

Gaur argitaratu da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Udal Finantzaketarako Foru Funtza (UFFF) arautzen duen 15/1994 Foru Arauaren aldaketa. Horren bidez, 1.100 biztanle arteko udalerriei UFFF osoaren % 1,2 bermatuko zaie, eta kopuru hori haien artean banatuko da, zati berdinetan.

Aldaketa egin aurretik, UFFFa arautzen duen 15/1994 Foru Arauaren 3.1.a) artikulua funtsaren % 1,2 1.100 biztanletik beherako udalerrien artean banatuko zela ezartzen zuen, eta horietako bakoitzari kuota finko bat esleituko zitzaiola.

Kuota finko horren helburua baliabide gehigarriak bermatzea zen, 1.100 biztanletik beherako udalerria izateak dakarren zailtasunari eta egoera bereziari aurre egiteko. Hala ere, kuota hori 1994tik ez zen eguneratu.

Foru Arauaren aldaketa EUDELen Gipuzkoako Lurralde Batzordeak egindako azterlanaren ondorio da. Azterketa horren arabera, 1.100 biztanletik beherako udalerriei kuota finkoak aplikatzean 2.091.522 euroko finantzaketa zegokien, hau da, 2024ko UFFFren % 0,32, eta ez % 1,2. Gainera, alde hori urtez urte handitzen joan da, UFFFaren zuzkidura handitu ahala.

Horren haritik, EUDELen Gipuzkoako Lurralde Batzordeak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera lan egitea proposatu zuen, egindako azterlanetik ateratako proposamena aurkezteko eta aztertzeke. Beraz, lortutako akordioa Foru Aldundiaren eta udalerrien arteko adostasunaren eta lankidetzaren ondorio da.

2025etik aurrera, banaketa egokiagoa izango da 1.100 biztanletik beherako udalerrien egoera bereziari aurre egiteko eta herritarrei eskaintzen dizkieten zerbitzuak indartzeko.

Bilbon, 2024ko irailaren 19an